

ALBOANEKO ELKARTASUNAREN ALDEKO IRAKASLE SAREAREN V. TOPAKETA



**HEZKUNTZA BERRIKUNTZA
ETA GAZTEEN PARTE HARTZEA:
HEZKUNTZA ERALDATZAILE BATERAKO OINARRIAK.**

URDUÑA, 2018KO MARTXOAREN 16, 17 ETA 18



ALBOAN



ZER DA EDUKALBOAN?

EDUKALBOAN Sarea, gizarte bidezkoagoa, barneratzaileagoa eta berdintasunaren aldekoagoa eraikitze konpromisoa duten hezitzaileen sare bat da, gure munduko desberdintasun sakonen aurka borroka egingen duena.

Gure ustez, ikastetxeak eta hezkuntza ez-formala eskaintzen duten taldeak horrelako eraldaketa-prozesu pertsonalak eta sozialak sustatzeko gune aproposak dira, eta pertsona, eskola, talde edota mugimendu askoren artean sortutako harremanak eta sinergiak lagungarri izango dira **hiritartasun globala eraikitze hezkuntza eraldatzailea lortzeko bidean.**

NOR GONBIDATU NAHI DUGU?

Helburu horiekin bat datozen eta lan egiteko eta itxaropena pizteko beste modu batzuk ezagutu nahi dituzten hezitzaile guztiak gonbidatu nahi ditugu **SAREAN** parte hartzera, sinetsita baikaude denok dugula zer eskaini mundu hau aldatzeko.

Topaketa hau gaur egungo gizarte-ereduak errepikatzea eta guri bizitzea egokitu zaigun gizarte insolidario eta bidegabe honetara egokitzea beste helbururik ez duen hezkuntzarekin ados ez dauden hezitzaile guztientzat da. Alegia, beren burua prestatzen jarraitu eta beste batzuekin bat egin nahi duten hezitzaileentzat, gehiago ikasteko, ekarpenak egiteko eta proposamen berriak sortzeko.

ZER DA TOPAKETA?

ALBOANekin lotura dugun hezitzaileok elkartzeko gunea da, partekatze, sakontze eta geure burua prestatzen jarraitzeko lekua.

ZER PROPOSATZEN DIZUEGU?

ALBOANek mundu bidezkoago batekin konprometituta dauden herritarrak sortuko dituen **HEZKUNTZA ERALDATZAILEA** eraikitze prozesuan parte hartu nahi du. ALBOAN-Gazte Sarearen topaketarekin batera sustatzen eta partekatzen dugun V. Topaketa izango da. Bi sareetako bakoitzak bere lan-agenda izango du, eta gune batzuk partekatuko ditugu.

Aurten, Sarearen topaketan, gai hauek landuko ditugu: ikastetxeen aldaketa prozesuak nola sostengatu alde batetik, eta bestetik hiritartasunerako parte hartzeari buruzko hausnarketa gure hezkuntza espazioetan. Horretarako, gure hausnarketa bideratuko duten adituak izango ditugu, eta hezkuntza-esperientzia zehatz batzuen berri izango dugu esperientzia horien protagonisten eskutik.

NOIZ ETA NON?

Martxoaren 16tik 18rarte.
Foru Plaza, 5
48460, Urduña
Bizkaia

ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

Eman izena esteka honetan:

<https://labur.eus/JV3Fn>

Zalantzaren bat izatekotan ALBOANekin harremanetan jarri.
Izena emateko azken eguna martxoaren 13a izango da.

*Garraioen gastuak ordaintzeko diru laguntza daukagu.
Izena eman ondoren argibideak jasoko dituzu gastuak nola erregistratu behar diren jakiteko.*

TOPAKETAREN ARDURADUNA:

Álvaro González,
a.gonzalez@alboan.org
94 415 11 35

EGITARRAUA

OSTIRALA 16

20:00	Iritsiera eta Harrera
20:30	Ongi etorria
21:00	Afaria
22:30	Gau bela eta aurkezpenak
00:00	Egunaren jasoera

LARUNBATA 17

8:00	Esnatu
8:30	Gosaria
9:30	Egunaren hasiera
9:45	EDUKALBOAN topaketaren aurkezpena
10:10	Pepe Menéndez: <i>¿Nola eutsi aldaketari? Jomugak, gakoak eta tresnak.</i>
12:00	Atsedena
12:30	Sabrina Burgos: <i>Berrikuntza eta hiritartarren parte hartzea.</i> <i>Gizarte eraldaketa eta burujabetze prozesuetan gazteak laguntzen.</i>
14:00	Atsedena
14:30	Bazkaria
16:00	Esperientzi mahaia: <i>Berrikuntza eta parte hartzea, esperientzia konkretuak.</i>
17:30	Atsedena
18:00	Nola ulertzen dute gazteek parte hartzea? <i>Fe y Alegria Kolonbiako testigantzak</i>
19:30	Egunaren jasoera
20:00	Atsedena
21:00	Afaria
22:30	Gaubela

IGANDEA 18

8:00	Esnatu
8:30	Gosaria
9:15	Egunaren hasiera
9:30	"Parte Hartzearen Bidean" proposamenaren aurkezpena
10:30	World café: Konklusioak eta ikaspenak
12:00	Atsedena
12:30	Kalejira
13:45	Bazkaria

